

AITONA ETA BILLOBACHOA

AIREA: *Urzo churiya...*

Aitonacho bat mendijan,
gaztañ arbolen azpiyan;
billobachoa laztandurikan
bere besuen erdiyan,
eseririkan alkiyan
zeguen pachara aundiyan.

Aurrari ziyon:—Kufuna,
zera nere poztasuna;
naigabe, neke, pena guziyak
kendutzen dizkiratzuna;
aitonaren osasuna,
luza-arazten dezuna.

Zu besoetan laztantzen,
ez naiz beñere aspertzen;
atsegiñ aundiz nik magalian
zaitut zu beti gošatzen,
jzeñen gustora orlašen
detan denbora pasatzen!

Maiz emanikan musua,
esaten diyo:—¡Gašua!
biotz nerian sartuta zauden
pare gabeko usua;
aušen da zorionchua,
nere maitecho gošua.

Badaukat erregaliya,
kanpotikan ekarriya;
imajiña bat zillarrezkoa
erosi berri berriya,
egiten dizut sariya
ibill dezazun jantziya.

Aurrak diyo aitonari:
—Badakit zer duben ori;
«Aita-gurea» euskarazkoa
esan detalako ongi
pozturikan dit ekarri,
erregali on au neri.

—Bai, izar eder maitia,
gozotasunez betia;
orañ artean bezela beti
euskaldun izan zaitia,
au nai det nik izatia
aitonen borondatia.

Euskaraz mintza gaitian,
munduan geran artian;
Jaunaren lege onak gorderik
geronen borondatian,
anaitasun ta pakian,
euskaldun denak batian.

JOSÉ ARTOLA.